

» TELEGRAMA


Ezin izan zenuela **Guns n' Roses** San Mamesen ikusi? Tira, bada pentsatzen duenik ez zenuela gauza handirik galdu. Baina Axl Rose eta konpainiaren fan hutsa bazara, Irungo Tunk! aretoan **Appetite for Illusion** tributu-taldea ikus dezakezu uztailaren 15ean **STOP Ander Lipus** eta **Patricia Urrutia** taula gainean Victoria Eugeniean. Noiz? Uztailak 15. **Hozkailua** du izena Huts teatroaren azken lanak **STOP Alexander Duncan** artista britainiar gaztea da eta haren lanak ikusgai daude hilabete bukaeraino Bilboko Aldama Fabre Galleryn. Zer den benetakoa eta zer ez auzitan jarri nahi du **Blow In** erakusketaren bidez **STOP**

» KONTZERTUA

Pop librea



Joxi Ubeda



21'44''

OSO FAN

Autoekoizpena, 2017

Oso Fan taldeak bere lehen diskoa kaleratu du jadanik. Disko polita, gustura entzuten dena. Kantuetan pop kutsuko melodiak entzun daitezke, gozoak, eta folk ukituren bat ere antzeman daiteke. Doinu atseginak dira, eta malenkonია apur bat transmititzen dute.

Kantuetan eguneroko kontu txikiez eta ez hain txikiez mintzo dira, zorroztasunez eta gatz pixka batekin. “Gaur berandutzen hasi da, zin dagizut bihar hasiko naizela agindutakoa egiten, dena ondo egiten”, *Gaur lehen* singlean dioten moduan.

Giorgio Bassmatti abeslari eta gitarra donostiarra eta Oriol Flores Donostian bizi den bateria jotzaile katalana dira Oso Fan taldeko kideak. Giorgio Bassmattik bere ahotsa du, bere kantatzeko modua, leuna, apala, eta barruraino heltzen dena.

Oriol Flores bateria jotzaile handia da eta ederki aritzen da kantuetan, melodiei erritmoa jartzten eta doinuak osatzen.

Biak ala biak ez dira hasiberriak. Bassmattik lehenago *Melodías concertantes* (2014) eta *Aproposito* (2010) diskoak kaleratu ditu Jon Bidaurre-

kin, eta *Kafea eta galletak* (2009) diskoa ere egin du. Halaber, Donut taldearekin *Allesque Boutade* (1996) EPa egin zuen. Donut taldean Jon Bidaurrekin berearekin eta Ivan Zabalegirekin (Lisabo, Nire) aritzen zen. Oriol Flores musika irakaslea da. Triz3ps, Sortuko dira besteak, Gozategi, Iker Lauroba, Charlie and the Colours, Amor de Tokyo, Izaro eta beste hainbat taldetan jo du, eta disko batzuk grabatu ditu talde horiekin.

Oso Fan taldearen diskoa jendaurreko emanaldietan eta www.bassmatti.com webgunearen bidez soilik eskura daiteke. Berako MIK estudioan egin dute grabazioa, Xabier Erkiziarekin. Grabazioaz eta ekoizpenaz arduratu da Xabier Erkizia, eta diskoa osatzeko garaian beste bi lagun ere aritu dira: Arrate Garcia (koruak eta txindatak) eta Pilar Aguilar (azala).

Oso Fan taldea bere ibilbidea egin ari da, eta gero eta ezagunagoa da. 2016ko Gure Bazterrak musika taldeen lehiaketa irabazi zuen. Taldekideen hitzetan, saria pizgarri eder bat izan da musika egiten segitzeko: “Kriston ilusioa egin digu horrelako aipamena jasotzek, gure pop librea egiten jarraitzeko”.

Hainbat emanaldi egin dituzte orain arte. Besteak beste, Bilboko eta Durangoko Kafe Antzokietan, Iruñeko La Zentral aretoan, Azpeitiko San Agustín kulturean, Zarauzko Modelo aretoan, Urretxuko Kalegorrian musika zikloan, Japonian, eta aurrerantzean ere han eta hemen jotzen ikusiko ditugu. ■



Oriol Flores eta Giorgio Bassmatti dira Oso Fan taldeko kideak.